
**ARRASATE UDALERRIAN OBRAK BURUTZEAN EDUKIONTZI, HESI
BABESTAILE, ALDAMIO ETA GAINERAKO EKIPO ETA MATERIALEZ
LURZORU PUBLIKOAREN ERABILERA BEREZIAREN MUGA
ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA BERRIA**

**Udalbatzarrak onartua 1994ko urriaren 11ean
Udalbatzarrak 2001eko urriaren 8an aldatua**

I. ATALBURUA

1. Atala.- Arrasate udalerrian obrak burutzean edukiontzi, hesi babestaile, aldamiu eta gainerako ekipo eta materialak jarriz udal lurzoru publikoaren erabilera eta okupazioa erregulatzeko du helburu Ordenantza honek, eta okupazio horretarako udal baimena lortzeko, aldeztu aurretik bete beharreko baldintzak zein diren adieraztea ere bai.

2. Atala.- Halaber, honekin batera doan I. Eranskinean datorren "Kartelerako Eredu"an adierazten diren datuez informazio-kartela obran jartzeko derrigortasuna arautzea eta, Ordenantza honetako II. Eranskinean aipatzen denaren arabera, okupazioaren muga eta iraupenari buruzko datuak ematea du helburu Ordenantzak, eta gainera, obrek eragindako inguruak garbitzeko derrigortasuna betetzea, behar bezala funtzionatzeko, afektaturik dauden udal zerbitzu publikoak egoki mantentzea, eta aplikaziorako segurtasun-araudia betetzea, obrak burutzean erabilitako elementuei dagokionean.

II. ATALBURUA
EDUKIONTZIAK

3. Atala.- Edukiontzien bidez lurzoru publikoaren okupaziorako udal baimena lortzeko, obra-hondakin edo obrako beste material batzuen gordailu gisa erabiltzeko gero, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Eskatzen duen enpresa edo pertsona fisikoaren identifikazio osorako behar diren datuekin batera aurkeztu beharko da baimen-eskabidea.
- b) Halaber, bide publikoan edukiontziak jartzeak sor litzakeen kalte mota guztiei erantzuten dien Aseguru poliza aurkeztu beharko da, behar den bezala eguneraturik (espaloiak hondaratzeko, arketak haustea, hustubideak eta gainerako kalteak), eta edukiontziena edo garraioaz arduratzen den kamioiarena izan daiteke berarizko poliza hori.
- c) Udaltzaingoaren txostena beharko du gauzak uzteko eskabideak.

**ARRASATE UDALERRIAN OBRAK BURUTZEAN EDUKIONTZI, HESI BABESTAILE, ALDAMIO ETA GAINERAKO EKIPO
ETA MATERIALEZ LURZORU PUBLIKOAREN ERABILERA BEREZIAREN MUGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA
BERRIA**

-;Error!Marcador no definido.-

4. Atala.- Baimena lortutakoan eta gauzak jarri baino lehen, hauek bete beharko dituzte edukiontzien titularrek:

- a) Pintura isladatzailea itsatsirik izango dute edukiontziek, behar bezala seinalizaturik egoteko, eta era berean, identifikazio zenbakia adierazi beharko da edukiontzietan.
- b) Zurezko takuen gainean jarriko dira edukiontziak, bide publikoa hondatu ez dezaten. **Altueran 5 cm eta zabalera 10 cm-koa izango da takuen gutxienezko lodiera.**

Zabalera osoa estaltzen duten bi taku izango ditu edukiontzi bakoitzak, eta 2 metrokoa izango da taku horien gutxienezko luzera.

- c) Egoera onean egon beharko dute edukiontziek, batez ere, kanpoaldeetan, eta ezin izango dira erabili eskakizun hori betetzen ez duten guztiak.

5. Atala.- Edukiontziak erabiltzeko, hauek bete beharko dituzte edukiontzien erabiltzaileek:

- a) Normalean erabiltzen diren lan-ordutegiaz bat datozen aldi guztietan egon behar dute edukiontziek behar den bezala estalirik eta duen kargak ezin izango du gainditu goialdeko ertzek zehazten duten plano horizontala.
- b) Garbi mantendu beharko da edukiontziaren ingurunea, hondakinik gabe.

6. Atala.- Edukiontzien titularrak beharturik daude edukiontzien erabiltzailea identifikatu eta non dagoen jakiteko behar diren datuak Udalari ematen, horretarako eskatzen zaien guztietan.

7. Atala.- 4. 5. eta 6. ataletan jasotzen diren betebeharrak bete ezean, emandako baimenaren errebokazioa erabaki ahal izango du Udalak, eta edukiontziaren titularrak berehala kendu beharko ditu bide publikotik jarri dituen edukiontziak; aurrekoa betetzen ez bada, Udalak berak kenduko du edukiontzia, exekuzio subsidiarioaren jardunbidearen bidez, eta behartuaren kontura joango dira edukiontziak handik kendu, eraman eta biltegian lagatzetik sortutako gastuak.

8. Atala.- Edukiontziak ezin izango dira egon lurzoru publikoan zapatuetako arratsaldeko ordubietatik, edo jaiegunitako bezperetako 8etatik, astelehenetako edo jaiegunen biharamonetako goizeko 8ak arte, baimenaren titularrak kendu beharko dituelarik aldezturik.

9. Atala.- Alde Zaharraren inguruan edukiontziak jartzeari buruz, dituen ezaugarri bereziengatik (kale estuak, oinezkoentzako kaleak...), aurreko ataletan adierazten dena errespetatu eta betetzeaz gain, edukiontziak kentzea errespetatu beharko du astelehen, asteazken eta ostiraletan, arratsaldeko 6etatik aurrera, zabor-bilketa ez oztopatuzko.

III. ATALBURUA **HESIAK ETA ARGIAK**

10. Atala.- Hesiak jartzeko baimena lortzeko, eskabidearekin batera hesiak jartzen diren lekuaren oraingo egoera eta mugapenari buruzko oinplano bat eskala egokian erantsi beharko da, egin beharreko obraren neurriaren arabera, eta okupatu behar den azalera eta hesiaren ezaugarrien xehaztasun xehetuak adieraziko dira (sekzioa, materialak, e.a.), eta baimen hori emateko, Udaltzaingoa txostena beharko da, hark erabakiko duelarik okupatu ahal izango

**ARRASATE UDALERRIAN OBRAK BURUTZEAN EDUKIONTZI, HESI BABESTAILE, ALDAMIO ETA GAINERAKO EKIPO
ETA MATERIALEZ LURZORU PUBLIKOAREN ERABILERA BEREZIAREN MUGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA
BERRIA**

dituen plantako dimentsioak.

11. Atala.- Behar bezalako segurtasun eta apaindura baldintzak eskainiko dituzte hesiek; obra-baimenaren partikular edo enpresa titularri dagokio hura jartzea, kontserbatzea eta mantentzea.

12. Atala.- Barrualderantz irekiko dira hesiek dituzten atak eta lanak ordaindutakoan itxi beharko dira; hesitik kanpo ezin izango da okupatu bide publikoa eraikitzen edo berritzen ari diren finketarako diren materialez. Dena den ere, materialak biltzeko, kalea estua delako ezin denean espaloian jarri hesirik, salbuespenez, baimena eman ahal izango du Udalak baldintza zehatzetan kaltzadara irteteko.

13. Atala.- Bide publikoan edo haren muga inguruetan burutzen diren obretan, nahikoa argi-kopurua jarriko da, dagoen arrisku edo oztopoaren berri emateko jendeari, eta gaualdetik goizaldera arte egon beharko dute argi horiek pizturik.

IV. ATALBURUA **ALDAMIOAK**

14. Atala.- Udal baimena izan beharko da mota guztietako aldamioak eraikitzeko, eta hura lortzeko, eskabidearekin batera dagokion dokumentazio grafikoa erantsi beharko da, zelan kokatuko diren eta gainerako xehetasunak adieraziko direlarik, eta horrez gain, horri buruz Udaltzaingoak egiten duen txostena beharko da.

15. Atala.- Eraikuntza hori, edozein izanik ere aldamio-mota, obrako zuzendari edo arduradunaren erantzukizunaren pean egingo da; **harek, jarraian zerrendatzen diren baldintza guztiak betearaziko ditu, eta gainera, dakizkien aholkuak emango ditu; halaber, Laneko Segurtasun eta Higieneari buruzko Ordenantzaren 20 eta 23. ataletan xedatutakoa bete beharko da.**

a) Zorua ohol gotorrez osaturik izango dute aldamio finakoek, hausturarik sor dezaketen koropilorik gabe, gehienez ere bost zentimetroz bereizirik bata bestearekiko; gutxienez ere hiru bermapuntutan kokatuko dira oholak, baldin eta haren luzera bi metrokoa baino luzeagoa bada. Txikiagoa denean luzera, bi bermapuntutan bakarrik kokatu ahal izango da. Gutxienez metro batekoa izango da plantxaren zabalera igeltsero, harginen aldamio finakoetarako eta, oro har, neurri bateko pisuak jasan behar dituen guztietarako, planta berriko obrak direnean. Konpontzeko obrak direnean, hirurogei zentimetrokoa izango da zabalera. Berrogei zentimetrokoa izango da, gutxienez, pintore, iturgin eta bestelako aldamioetan.

b) Aldamio finko guztiek, lau metrotik gorako altuera batean jartzen direnean, espaziora ematen duten aldeetatik karel bat eramango dute, eta karelak gutxienez metro bateko altuera izango du, burdinezko, zurezko edo soka gogorrezko eskubanda finko eta gotor batez, eta altueran gutxienez hogeitun zentimetroko errodapi batez osaturik. Horien artean dagoen distantziaren erdian, burdinezko hagatxo bat, zurezko edo sokazko listoi bat jarriko da, eskumako oinak ondo loturik. Korapilezko soka eta kaiola, jaitsierako hodiak konpontzen eta lehendik dauden eraikinetan egiten diren antzeko lanetan bakarrik utziko dira erabiltzen.

Balkoietako pinturarako, lehendik eraikita zeuden eraikinetan ere, bi oholdun eta hagatxo edo listoi tinkoak dituen bizkarralde gotordu bi tximeletak osatutako aldamioak jarri ahal izango dira.

c) Ezin izango da liza-sokarik erabili aldamio mugikorren tiro edo suspentsioetan.

**ARRASATE UDALERRIAN OBRAK BURUTZEAN EDUKIONTZI, HESI BABESTAILE, ALDAMIO ETA GAINERAKO EKIPO
ETA MATERIALEZ LURZORU PUBLIKOAREN ERABILERA BEREZIAREN MUGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA
BERRIA**

-;Error!Marcador no definido.-

- d) a) atalak obra-mota anitzetarako adierazten dituen zabalera bereaz eta modu berean eraikiko da aldamioren zorua, eta tabloiak erabili beharrean ohol gogorrak erabiliko dira, baina gutxienez hirurogei zentimetroko zabalera batez. Polea finkoen bidez edo eraikineko alderik gotorrenei edo gako-iltze gogorrei lotutako poleen bidez esekiko dira, baina inoiz ere ezin izango dira tiroak ziurtatu teiletegaletan, berma-barretan, gapirioetan edo antzeko beste leku batzuetan sartutako iltzeek. Eseki hori modu honetara egingo da: bermapuntu eta soken arteko distantzia ez da hiru metro baino haundiago izango. Hiru metro eta hogeita bost zentimetro baino luzeagoak ez diren aldamiotan eta behar-beharrezko kasuetan bakarrik erabili ahal izango dira bi bermapuntu.
- e) Finkoetarako b) atalak zehazten duenera egokituko dira aldami mugikorren karelak.
- d) Ezein kasutan ez dute galeraziko zerbitzuen ibilgailuak bide publikotik ibiltzea, hala nola, zabor-bilketa, bide-garbiketa, e.a. moduko zerbitzuena, eta harrera berezia eskainiko da Alde Zaharrean, han diren kaleen ezaugarriak direla-eta.

V. ATALBURUA

MAKINAK, ERREMINTAK, TRESNAK, OBJETUAK ETA ERAIKITZEKO MATERIALAK

16. Atala.- Makina, erreminta, tresna edo bestelakoez, eta eraikitzeke beste edozein objektu eta materialez bide publikoaren okupazioa, udal baimena emateari lotuta egongo da, eta baimen hori lortzeko, dagokion dokumentazio grafikoa erantsiko zaio eskabideari, non kokatuko den eta horiei buruzko gainerako xehetasunak agertuko dituelarik.

17. Atala.- Eraikitzeke materialak, hala nola, porlanak, harea, legarra eta antzekoak, obraren esparru mugatutik kanpora daudenean, bide publikoan bakarrik kokatu ahal izango dira, baldin eta hartarako diren edukiontzietan behar den bezala jasota egonez gero.

18. Atala.- Aurreko atalean xedatutakoaren kalterik gabe, dagokion baimena lortu ondoren, adreilu-blokeez eta antzeko elementuez (baldosak, e.a.) bide publikoa okupatzen utziko da, edukiontziak jarri beharrik gabe, baldin eta paletizaturik eta bildukin egokien bidez (plastiko, lona, e.a.) behar bezala babesturik egonez gero.

19. Atala.- Material plastikoan jarri beharko dira hormigoia edo kareorea prestatzean erabilitako makina edo aparatuak, bide publikoa eta hurbileko inguruak zikin ez daitezen.

20. Atala.- Halaber, atal honetan aipatutako elementu guztiek, eta haiek okupatutako espazioek, behar bezalako segurtasun eta apaindura baldintzak izango dituzte, eta kasu guztietan pasaera publikoa ez eragozteko moduan jarriko dira; era berean, ezin izango dira egon lurzoru publikoan zapatuetako eguerdiko ordubietatik aurrera, edo jaiegunitako bezperetako gaueko 8etatik astelehenetako edo jaiegunen biharamonetako goizeko 8ak arte, baimenaren titularrak kendu beharko duelarik behar hainbateko aurrerapenaz, justifikatutako arrazoiengatik berarizko baimenik ez badu behintzat.

21. Atala.- Behar bezala justifikaturik, beharra dutelako, bide publikoan gauez egon behar izanez gero aipatu diren elementuetatik edozein, seinalatu egin beharko dituzte jabeek eta behar den bezala argitu.

***ARRASATE UDALERRIAN OBRAK BURUTZEAN EDUKIONTZI, HESI BABESTAILE, ALDAMIO ETA GAINERAKO EKIPRO
ETA MATERIALEZ LURZORU PUBLIKOAREN ERABILERA BEREZIAREN MUGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA
BERRIA***

-;Error!Marcador no definido.-

VI. ATALBURUA

ERAISTEAK

22. Atala.- Obra edo eraikinak eraisteko, udal baimena lortu eta gero, ezaugarri bereko hesiak eta III. Atalburuan adierazitako baldintzetan jarri beharra dago.

23. Atala.- Bereziki, goizeko lehen orduetan eraitsiko dira eraikinak. Horma-etxeak, markoak, zurrinak eta gainerako pieza desmontagarriak jaitsi eta kentzen bakarrik utziko da egun bereko gainerako orduetan.

24. Atala.- Derrigorrezkoa da, eraisten den bitartean, obra-hondakinak dexente urreztatzea, bai eta obraren luzera edo aurrekoari dagokion bide publikoaren zatia ere.

25. Atala.- Ezin izango da obra-hondakinik kalera, nahi bezala, bota eraikinaren goialdetik; horretarako, behar bezalako ontzi edo konduktu itxi batzuk erabili beharko dira.

26. Atala.- Herrian egiten diren eraispn eta gainerako obretatik datozen obra-hondakin eta lurak, baimena duten isurtegieta utziko dira.

VII. ATALBURUA

APARKALEKU PLAZAK OKUPATZEA

27. Atala.- Aurreko ataletan adierazitako bide publikoaren okupazioak gorabehera, alde aurreko udal baimena izan beharko du aparkaleku plazak izateko espazio publikoen aldi baterako okupazio pribatiboak, obrak burutzean zamaianak egiteko leku bat izan dadin.

28. Atala.- Baimen hori lortzeko, dokumentazio grafikoa erantsiko zaio dagokion eskabideari eta han, zein plaza okupatuko den eta okupazioak zenbat iraungo duen zehaztuko da.

29. Atala.- Edozelan ere, behar den moduko seinalizazioa izan beharko du aparkaleku plazen okupazioak; Udaltzaingoak normalizatutako mugarren bidez egingo da hura, eta ez da onartuko bestelako seinalizazio-elementurik.

30. Atala.- Erabat debekaturik dago zurak, tabloiak, kaxak eta halakoak bide publikoan jartzea, zamaianak egiteko aparkalekurako diren lekuak erreserbatzeko asmoz. Aipatu hori, egokia izanez gero, Udaltzaingoak normalizatutako mugarren bidez seinalatu beharko da.

VIII. ATALBURUA

XEDAPEN OROKORRAK

31. Atala.- Ordenantza honetan ezarritakoaren kalterik gabe, Laneko Segurtasun eta Higieneari buruzko Ordenantzan xedatutakora egokitu beharko da Ordenantzan aipatutako elementuen instalazioa.

32. Atala.- 30 milioitik gorako aurrekontua eta/edo 6 hilabetetik gorako burutzapen-epea duten obretan, derrigorrezkoa izango da informazio-karte-la jartzea, eta ordenantza honekin batera doan I. Eranskin gisa "kartelerako eredu"an agertzen diren datuak azalduko dira kartelean.

***ARRASATE UDALERRIAN OBRAK BURUTZEAN EDUKIONTZI, HESI BABESTAILE, ALDAMIO ETA GAINERAKO EKIPO
ETA MATERIALEZ LURZORU PUBLIKOAREN ERABILERA BEREZIAREN MUGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA
BERRIA***

-¡Error! Marcador no definido.-

Obretan agertzen diren adierazpen, ohar, e.a., eta segurtasunari buruzko seinalizazioa ere, gutxienez, euskaraz idatzirik agertuko dira.

33. Atala.- Dagokion baimena lortu ondoren, obra burutzean parte hartzen duten enpresa instalatzaileek (aldamio, garabia, zurgintzakoak, e.a.) kartel iragarleak jarri ahal izango dituzte obran. Dena den, behar bezalako segurtasun eta apaindura baldintzetan jarri beharko dira, eta izaera iragankorra izango dute, obrak dirauen bitartean.

34. Atala.- Bide publikoak okupatzeko baimen eskabideekin batera, aurreko ataletan zehazten den dokumentazioaz gain, okupazioaren iraupena eta muga adierazten dituen erantsi beharko da, Ordenantza honetako II. Eranskinean jasotzen den ereduaren arabera.

35. Atala.- Halaber, beharrezkoa izango da obrek eragindako inguruak egunero garbitzea, eta eragindako udal zerbitzu publikoak (hustubideak, e.a.) behar bezalako baldintzetan mantentzea, horien ohizko funtzionamendua bermatzeko.

36. Atala.- Aldi baterako okupazio pribatiborako baimena behar izan duten inguru publikoak, Udalaren Zerbitzu Teknikoak horietara heltzeko zortasun baten menpe egongo dira, mantenimendu-lanak burutu nahiz ikuskatzeko.

IX. ATALBURUA ***"SANTZIOAK"***

37. Atala.- Aurreko atalburuetako ataletan ezarritakoa bete ezean, dagokion zigor-espedita ireki eta izapidatuko da; Administrazioaren Jardunbideari buruzko Legean aurrikusitakoari jarraituz izapidatuko da espedita, eta 5.000 eta 10.000 pezeta arteko isun batez zigortuko da, hautsitako arauaren larritasun handi edo txikiagoaren arabera.

38. Atala.- Ordenantza honetan agindutakoa ez betetzeagatik, erantzukizuna txartzen duten gorabeheratzat joko dira behin eta berriro egin eta behin eta berriro erortzea.

39. Atala.- Ordenantza honetan ezarritakoa arau-hausteagatik, obretako sustatzailea, enpresaria eta teknikari zuzendaria santzionatuko dira, beti ere Ordenantza honetan araututako jardueretako bat egin beharra badago horren ondorioz.

40. Atala.- Arduradunei zigorrak ezarriko bazaie ere, dagokion zigor- prozedura izapidatu ondoren, kalteak ordaintzeko obligazioak jarraituko du, arduradun izendatzen direnen kontura.

X. ATALBURUA ***LURZORU PUBLIKOA OKUPATZEKO BAIMEN*** ***PRIBATIBOAREN PREZIOAK ORDAINTZEA***

41. Atala.- Ordenantza honetan aipatzen diren elementuetako edozeinez zoru publikoa okupatzeko baimenak, "Udalerriko jabari publikoaren baimen pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik Prezio Publikoak arautzen dituen Ordenantza Fiskal"ean ezarritako prezio publikoak ordaintzea sortuko du.

ARRASATE UDALERRIAN OBRAK BURUTZEAN EDUKIONTZI, HESI BABESTAILE, ALDAMIO ETA GAINERAKO EKIPO
ETA MATERIALEZ LURZORU PUBLIKOAREN ERABILERA BEREZIAREN MUGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA
BERRIA

-;Error!Marcador no definido.-

42. Atala.- Dena den ere, legokiokeen santziora gorabehera, aipatutako elementuak jarriz udal baimenik gabe lurzoru publikoaren okupazioaren balizkoetan eta baimendu gabeko azaleraren okupazioarenean, okupazio horiei dagozkien prezio publikoak lau aldiz gehituko dira Ordenantza honetan ezarritako kopuruak.

Baimenaz edo baimengabetzat jotzeko, aldi batez baimena gaintzen duen lurzoru publikoaren okupazioa (berariz edo nahi gabe, eskatutakoaren arabera) baimengabetzat joko da.

XEDAPEN DEROGATZAILEA

Derogaturik geratzen da aurreko Ordenantza, 1992ko ekainaren 12an egindako osoko bilkuran behin-betiko ontzat emandako Ordenantza, hain zuzen ere.

AZKEN XEDAPENA

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Behin-betiko Testua argitara ematen denetik hamabost egunera sartuko da indarrean Ordenantza hau, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70-2. atalean xedatutakoaren arabera.

***ARRASATE UDALERRIAN OBRAK BURUTZEAN EDUKIONTZI, HESI BABESTAILE, ALDAMIO ETA GAINERAKO EKIPO
ETA MATERIALEZ LURZORU PUBLIKOAREN ERABILERA BEREZIAREN MUGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA
BERRIA***

-;Error!Marcador no definido.-

**ARRASATE UDALERRIAN OBRAK BURUTZEAN EDUKIONTZI, HESI
BABESTAILE, ALDAMIO ETA GAINERAKO EKIPO ETA MATERIALEZ
LURZORU PUBLIKOAREN ERABILERA BEREZIAREN MUGA
ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA BERRIA**

**Udalbatzarrak onartua 1994ko urriaren 11ean
Udalbatzarrak 2001eko urriaren 8an aldatua**

I. ATALBURUA

1. Atala.- Arrasate udalerrian obrak burutzean edukiontzi, hesi babestaile, aldamiu eta gainerako ekipo eta materialak jarriz udal lurzoru publikoaren erabilera eta okupazioa erregulatzeko du helburu Ordenantza honek, eta okupazio horretarako udal baimena lortzeko, alde zuzenetik bete beharrezko baldintzak zein diren adieraztea ere bai.

2. Atala.- Halaber, honekin batera doan I. Eranskinean datorren "Kartelerako Eredu"an adierazten diren datuez informazio-kartela obran jartzeko derrigortasuna arautzea eta, Ordenantza honetako II. Eranskinean aipatzen denaren arabera, okupazioaren muga eta iraupenari buruzko datuak ematea du helburu Ordenantzak, eta gainera, obrak eragindako inguruak garbitzeko derrigortasuna betetzea, behar bezala funtzionatzeko, afektaturik dauden udal zerbitzu publikoak egoki mantentzea, eta aplikaziorako segurtasun-araudia betetzea, obrak burutzean erabilitako elementuei dagokionean.

II. ATALBURUA
EDUKIONTZIAK

3. Atala.- Edukiontzien bidez lurzoru publikoaren okupaziorako udal baimena lortzeko, obra-hondakin edo obrako beste material batzuen gordailu gisa erabiltzeko gero, baldintza hauek bete behar dira:

- a) Eskatzen duen enpresa edo pertsona fisikoaren identifikazio osorako behar diren datuekin batera aurkeztu behar da baimen-eskabidea.
- b) Halaber, bide publikoan edukiontziak jartzeak sor litzakeen kalte mota guztiei erantzuten dien Aseguru poliza aurkeztu behar da, behar den bezala eguneraturik (espaloiak hondaratzeko, arketak hausteko, hustubideak eta gainerako kalteak), eta edukiontziena edo garraioaz arduratzen den kamioiarena izan daiteke berarizko poliza hori.
- c) Udaltzaingoaren txostena behar du gauzak uzteko eskabideak.

**ARRASATE UDALERRIAN OBRAK BURUTZEAN EDUKIONTZI, HESI BABESTAILE, ALDAMIO ETA GAINERAKO EKIPO
ETA MATERIALEZ LURZORU PUBLIKOAREN ERABILERA BEREZIAREN MUGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA
BERRIA**

-;Error!Marcador no definido.-

4. Atala.- Baimena lortutakoan eta gauzak jarri baino lehen, hauek bete beharko dituzte edukiontzien titularrek:

- a) Pintura isladatzailea itsatsirik izango dute edukiontziek, behar bezala seinalizaturik egoteko, eta era berean, identifikazio zenbakia adierazi beharko da edukiontzietan.
- b) Zurezko takuen gainean jarriko dira edukiontziak, bide publikoa hondatu ez dezaten. **Altueran 5 cm eta zabalera 10 cm-koa izango da takuen gutxienezko lodiera.**

Zabalera osoa estaltzen duten bi taku izango ditu edukiontzi bakoitzak, eta 2 metrokoa izango da taku horien gutxienezko luzera.

- c) Egoera onean egon beharko dute edukiontziek, batez ere, kanpoaldeetan, eta ezin izango dira erabili eskakizun hori betetzen ez duten guztiak.

5. Atala.- Edukiontziak erabiltzeko, hauek bete beharko dituzte edukiontzien erabiltzaileek:

- a) Normalean erabiltzen diren lan-ordutegiaz bat datozen aldi guztietan egon behar dute edukiontziek behar den bezala estalirik eta duen kargak ezin izango du gainditu goialdeko ertzek zehazten duten plano horizontala.
- b) Garbi mantendu beharko da edukiontziaren ingurunea, hondakinik gabe.

6. Atala.- Edukiontzien titularrak beharturik daude edukiontzien erabiltzailea identifikatu eta non dagoen jakiteko behar diren datuak Udalari ematen, horretarako eskatzen zaien guztietan.

7. Atala.- 4. 5. eta 6. ataletan jasotzen diren betebeharrak bete ezean, emandako baimenaren errebokazioa erabaki ahal izango du Udalak, eta edukiontziaren titularrak berehala kendu beharko ditu bide publikotik jarri dituen edukiontziak; aurrekoa betetzen ez bada, Udalak berak kenduko du edukiontzia, exekuzio subsidiarioaren jardunbidearen bidez, eta behartuaren kontura joango dira edukiontziak handik kendu, eraman eta biltegian lagatzetik sortutako gastuak.

8. Atala.- Edukiontziak ezin izango dira egon lurzoru publikoan zapatuetako arratsaldeko ordubietatik, edo jaiegunetako bezperetako 8etatik, astelehenetako edo jaiegunen biharamonetako goizeko 8ak arte, baimenaren titularrak kendu beharko dituelarik aldezturik.

9. Atala.- Alde Zaharraren inguruan edukiontziak jartzeari buruz, dituen ezaugarri bereziengatik (kale estuak, oinezkoentzako kaleak...), aurreko ataletan adierazten dena errespetatu eta betetzeaz gain, edukiontziak kentzea errespetatu beharko du astelehen, asteazken eta ostiraletan, arratsaldeko 6etatik aurrera, zabor-bilketa ez oztopatuzko.

III. ATALBURUA **HESIAK ETA ARGIAK**

10. Atala.- Hesiak jartzeko baimena lortzeko, eskabidearekin batera hesiak jartzen diren lekuaren oraingo egoera eta mugapenari buruzko oinplano bat eskala egokian erantsi beharko da, egin beharreko obraren neurriaren arabera, eta okupatu behar den azalera eta hesiaren ezaugarrien xehaztasun xehetuak adieraziko dira (sekzioa, materialak, e.a.), eta baimen hori emateko, Udaltzaingoaren txostena beharko da, harek erabakiko duelarik okupatu ahal izango

**ARRASATE UDALERRIAN OBRAK BURUTZEAN EDUKIONTZI, HESI BABESTAILE, ALDAMIO ETA GAINERAKO EKIPO
ETA MATERIALEZ LURZORU PUBLIKOAREN ERABILERA BEREZIAREN MUGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA
BERRIA**

-;Error!Marcador no definido.-

dituen plantako dimentsioak.

11. Atala.- Behar bezalako segurtasun eta apaindura baldintzak eskainiko dituzte hesiek; obra-baimenaren partikular edo enpresa titularri dagokio hura jartzea, kontserbatzea eta mantentzea.

12. Atala.- Barrualderantz irekiko dira hesiek dituzten atak eta lanak ordaindutakoan itxi beharko dira; hesitik kanpo ezin izango da okupatu bide publikoa eraikitzen edo berritzen ari diren finketarako diren materialez. Dena den ere, materialak biltzeko, kalea estua delako ezin denean espaloian jarri hesirik, salbuespenez, baimena eman ahal izango du Udalak baldintza zehatzetan kaltzadara irteteko.

13. Atala.- Bide publikoan edo haren muga inguruetan burutzen diren obretan, nahikoa argi-kopurua jarriko da, dagoen arrisku edo oztopoaren berri emateko jendeari, eta gaualdetik goizaldera arte egon beharko dute argi horiek pizturik.

IV. ATALBURUA **ALDAMIOAK**

14. Atala.- Udal baimena izan beharko da mota guztietako aldamioak eraikitzeko, eta hura lortzeko, eskabidearekin batera dagokion dokumentazio grafikoa erantsi beharko da, zelan kokatuko diren eta gainerako xehetasunak adieraziko direlarik, eta horrez gain, horri buruz Udaltzaingoak egiten duen txostena beharko da.

15. Atala.- Eraikuntza hori, edozein izanik ere aldamio-mota, obrako zuzendari edo arduradunaren erantzukizunaren pean egingo da; **harek, jarraian zerrendatzen diren baldintza guztiak betearaziko ditu, eta gainera, dakizkien aholkuak emango ditu; halaber, Laneko Segurtasun eta Higieneari buruzko Ordenantzaren 20 eta 23. ataletan xedatutakoa bete beharko da.**

a) Zorua ohol gotorrez osaturik izango dute aldamio finakoek, hausturarik sor dezaketen koropilorik gabe, gehienez ere bost zentimetroz bereizirik bata bestearekiko; gutxienez ere hiru bermapuntutan kokatuko dira oholak, baldin eta haren luzera bi metrokoa baino luzeagoa bada. Txikiagoa denean luzera, bi bermapuntutan bakarrik kokatu ahal izango da. Gutxienez metro batekoa izango da plantxaren zabalera igeltsero, harginen aldamio finakoetarako eta, oro har, neurri bateko pisuak jasan behar dituen guztietarako, planta berriko obrak direnean. Konpontzeko obrak direnean, hirurogei zentimetrokoa izango da zabalera. Berrogei zentimetrokoa izango da, gutxienez, pintore, iturgin eta bestelako aldamioetan.

b) Aldamio finko guztiek, lau metrotik gorako altuera batean jartzen direnean, espaziora ematen duten aldeetatik karel bat eramango dute, eta karelak gutxienez metro bateko altuera izango du, burdinezko, zurezko edo soka gogorrezko eskubanda finko eta gotor batez, eta altueran gutxienez hogeitazentimetroko errodapi batez osaturik. Horien artean dagoen distantziaren erdian, burdinezko hagatxo bat, zurezko edo sokazko listoi bat jarriko da, eskumako oinak ondo loturik. Korapilezko soka eta kaiola, jaitsierako hodiak konpontzen eta lehendik dauden eraikinetan egiten diren antzeko lanetan bakarrik utziko dira erabiltzen.

Balkoietako pinturarako, lehendik eraikita zeuden eraikinetan ere, bi oholdun eta hagatxo edo listoi tinkoak dituen bizkarralde gotordu bi tximeletak osatutako aldamioak jarri ahal izango dira.

c) Ezin izango da liza-sokarik erabili aldamio mugikorren tiro edo suspentsioetan.

**ARRASATE UDALERRIAN OBRAK BURUTZEAN EDUKIONTZI, HESI BABESTAILE, ALDAMIO ETA GAINERAKO EKIPO
ETA MATERIALEZ LURZORU PUBLIKOAREN ERABILERA BEREZIAREN MUGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA
BERRIA**

-;Error!Marcador no definido.-

- d) a) atalak obra-mota anitzetarako adierazten dituen zabalera bereaz eta modu berean eraikiko da aldamioren zorua, eta tabloiak erabili beharrean ohol gogorrak erabiliko dira, baina gutxienez hirurogei zentimetroko zabalera batez. Polea finkoen bidez edo eraikineko alderik gotorrenei edo gako-iltze gogorrei lotutako poleen bidez esekiko dira, baina inoiz ere ezin izango dira tiroak ziurtatu teiltategaletan, berma-barretan, gapirioetan edo antzeko beste leku batzuetan sartutako iltzeek. Eseki hori modu honetara egingo da: bermapuntu eta soken arteko distantzia ez da hiru metro baino haundiago izango. Hiru metro eta hogeita bost zentimetro baino luzeagoak ez diren aldamiotan eta behar-beharrezko kasuetan bakarrik erabili ahal izango dira bi bermapuntu.
- e) Finkoetarako b) atalak zehazten duenera egokituko dira aldami mugikorren karelak.
- d) Ezein kasutan ez dute galeraziko zerbitzuen ibilgailuak bide publikotik ibiltzea, hala nola, zabor-bilketa, bide-garbiketa, e.a. moduko zerbitzuena, eta harrera berezia eskainiko da Alde Zaharrean, han diren kaleen ezaugarriak direla-eta.

V. ATALBURUA

MAKINAK, ERREMINTAK, TRESNAK, OBJETUAK ETA ERAIKITZEKO MATERIALAK

16. Atala.- Makina, erreminta, tresna edo bestelakoez, eta eraikitzeke beste edozein objektu eta materialez bide publikoaren okupazioa, udal baimena emateari lotuta egongo da, eta baimen hori lortzeko, dagokion dokumentazio grafikoa erantsiko zaio eskabideari, non kokatuko den eta horiei buruzko gainerako xehetasunak agertuko dituelarik.

17. Atala.- Eraikitzeke materialak, hala nola, porlanak, harea, legarra eta antzekoak, obraren esparru mugatutik kanpora daudenean, bide publikoan bakarrik kokatu ahal izango dira, baldin eta hartarako diren edukiontzietan behar den bezala jasota egonez gero.

18. Atala.- Aurreko atalean xedatutakoaren kalterik gabe, dagokion baimena lortu ondoren, adreilu-blokeez eta antzeko elementuez (baldosak, e.a.) bide publikoa okupatzen utziko da, edukiontziak jarri beharrik gabe, baldin eta paletizaturik eta bildukin egokien bidez (plastiko, lona, e.a.) behar bezala babesturik egonez gero.

19. Atala.- Material plastikoan jarri beharko dira hormigoia edo kareorea prestatzean erabilitako makina edo aparatuak, bide publikoa eta hurbileko inguruak zikin ez daitezen.

20. Atala.- Halaber, atal honetan aipatutako elementu guztiek, eta haiek okupatutako espazioek, behar bezalako segurtasun eta apaindura baldintzak izango dituzte, eta kasu guztietan pasaera publikoa ez eragozteko moduan jarriko dira; era berean, ezin izango dira egon lurzoru publikoan zapatuetako eguerdiko ordubietatik aurrera, edo jaiegundetako bezperetako gaueko 8etatik astelehenetako edo jaiegunen biharamonetako goizeko 8ak arte, baimenaren titularrak kendu beharko duelarik behar hainbateko aurrerapenaz, justifikatutako arrazoiengatik berarizko baimenik ez badu behintzat.

21. Atala.- Behar bezala justifikaturik, beharra dutelako, bide publikoan gauez egon behar izanez gero aipatu diren elementuetatik edozein, seinalatu egin beharko dituzte jabeek eta behar den bezala argitu.

***ARRASATE UDALERRIAN OBRAK BURUTZEAN EDUKIONTZI, HESI BABESTAILE, ALDAMIO ETA GAINERAKO EKIPRO
ETA MATERIALEZ LURZORU PUBLIKOAREN ERABILERA BEREZIAREN MUGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA
BERRIA***

-;Error!Marcador no definido.-

VI. ATALBURUA

ERAISTEAK

22. Atala.- Obra edo eraikinak eraisteko, udal baimena lortu eta gero, ezaugarri bereko hesiak eta III. Atalburuan adierazitako baldintzetan jarri beharra dago.

23. Atala.- Bereziki, goizeko lehen orduetan eraitsiko dira eraikinak. Horma-etxeak, markoak, zurrinak eta gainerako pieza desmontagarriak jaitsi eta kentzen bakarrik utziko da egun bereko gainerako orduetan.

24. Atala.- Derrigorrezkoa da, eraisten den bitartean, obra-hondakinak dexente urreztatzea, bai eta obraren luzera edo aurrekoari dagokion bide publikoaren zatia ere.

25. Atala.- Ezin izango da obra-hondakinik kalera, nahi bezala, bota eraikinaren goialdetik; horretarako, behar bezalako ontzi edo konduktu itxi batzuk erabili beharko dira.

26. Atala.- Herrian egiten diren eraispn eta gainerako obretatik datozen obra-hondakin eta lurrak, baimena duten isurtegiatan utziko dira.

VII. ATALBURUA

APARKALEKU PLAZAK OKUPATZEA

27. Atala.- Aurreko ataletan adierazitako bide publikoaren okupazioak gorabehera, alde zuzeneko udal baimena izan beharko du aparkaleku plaza izateko espazio publikoen aldi baterako okupazio pribatiboak, obrak burutzean zabaldu egiteko leku bat izan dadin.

28. Atala.- Baimen hori lortzeko, dokumentazio grafikoa erantsiko zaio dagokion eskabideari eta han, zein plaza okupatuko den eta okupazioak zenbat iraungo duen zehaztuko da.

29. Atala.- Edozelan ere, behar den moduko seinalizazioa izan beharko du aparkaleku plaza okupazioak; Udaltzaingoa normalizatutako mugarren bidez egingo da hura, eta ez da onartuko bestelako seinalizazio-elementurik.

30. Atala.- Erabat debekaturik dago zurak, tabloiak, kaxak eta halakoak bide publikoan jartzea, zabaldu egiteko aparkalekurako diren lekuak erreserbatzeko asmoz. Aipatu hori, egokia izanez gero, Udaltzaingoa normalizatutako mugarren bidez seinalatu beharko da.

VIII. ATALBURUA

XEDAPEN OROKORRAK

31. Atala.- Ordenantza honetan ezarritakoaren kalterik gabe, Laneko Segurtasun eta Higieneari buruzko Ordenantzan xedatutakora egokitu beharko da Ordenantzan aipatutako elementuen instalazioa.

32. Atala.- 30 milioitik gorako aurrekontua eta/edo 6 hilabetetik gorako burutzapen-epea duten obretan, derrigorrezkoa izango da informazio-karte-la jartzea, eta ordenantza honekin batera doan I. Eranskin gisa "kartelerako eredu"an agertzen diren datuak azalduko dira kartelean.

***ARRASATE UDALERRIAN OBRAK BURUTZEAN EDUKIONTZI, HESI BABESTAILE, ALDAMIO ETA GAINERAKO EKIPO
ETA MATERIALEZ LURZORU PUBLIKOAREN ERABILERA BEREZIAREN MUGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA
BERRIA***

-;Error!Marcador no definido.-

Obretan agertzen diren adierazpen, ohar, e.a., eta segurtasunari buruzko seinalizazioa ere, gutxienez, euskaraz idatzirik agertuko dira.

33. Atala.- Dagokion baimena lortu ondoren, obra burutzean parte hartzen duten enpresa instalatzaileek (aldamio, garabia, zurgintzakoak, e.a.) kartel iragarleak jarri ahal izango dituzte obran. Dena den, behar bezalako segurtasun eta apaindura baldintzetan jarri beharko dira, eta izaera iragankorra izango dute, obrak dirauen bitartean.

34. Atala.- Bide publikoak okupatzeko baimen eskabideekin batera, aurreko ataletan zehazten den dokumentazioaz gain, okupazioaren iraupena eta muga adierazten dituen erantsi beharko da, Ordenantza honetako II. Eranskinean jasotzen den ereduaren arabera.

35. Atala.- Halaber, beharrezkoa izango da obrek eragindako inguruak egunero garbitzea, eta eragindako udal zerbitzu publikoak (hustubideak, e.a.) behar bezalako baldintzetan mantentzea, horien ohizko funtzionamendua bermatzeko.

36. Atala.- Aldi baterako okupazio pribatiborako baimena behar izan duten inguru publikoak, Udalaren Zerbitzu Teknikoak horietara heltzeko zortasun baten menpe egongo dira, mantenimendu-lanak burutu nahiz ikuskatzeko.

IX. ATALBURUA ***"SANTZIOAK"***

37. Atala.- Aurreko atalburuetako ataletan ezarritakoa bete ezean, dagokion zigor-espedita ireki eta izapidatuko da; Administrazioaren Jardunbideari buruzko Legean aurrikusitakoari jarraituz izapidatuko da espedita, eta 5.000 eta 10.000 pezeta arteko isun batez zigortuko da, hautsitako arauaren larritasun handi edo txikiagoaren arabera.

38. Atala.- Ordenantza honetan agindutakoa ez betetzeagatik, erantzukizuna txartzen duten gorabeheratzat joko dira behin eta berriro egin eta behin eta berriro erortzea.

39. Atala.- Ordenantza honetan ezarritakoa arau-hausteagatik, obretako sustatzailea, enpresaria eta teknikari zuzendaria santzionatuko dira, beti ere Ordenantza honetan araututako jardueretako bat egin beharra badago horren ondorioz.

40. Atala.- Arduradunei zigorrak ezarriko bazaie ere, dagokion zigor- prozedura izapidatu ondoren, kalteak ordaintzeko obligazioak jarraituko du, arduradun izendatzen direnen kontura.

X. ATALBURUA ***LURZORU PUBLIKOA OKUPATZEKO BAIMEN*** ***PRIBATIBOAREN PREZIOAK ORDAINTZEA***

41. Atala.- Ordenantza honetan aipatzen diren elementuetako edozeinez zoru publikoa okupatzeko baimenak, "Udalerriko jabari publikoaren baimen pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik Prezio Publikoak arautzen dituen Ordenantza Fiskal"ean ezarritako prezio publikoak ordaintzea sortuko du.

ARRASATE UDALERRIAN OBRAK BURUTZEAN EDUKIONTZI, HESI BABESTAILE, ALDAMIO ETA GAINERAKO EKIPO
ETA MATERIALEZ LURZORU PUBLIKOAREN ERABILERA BEREZIAREN MUGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA
BERRIA

-¡Error! Marcador no definido.-

42. Atala.- Dena den ere, legokiokeen santziora gorabehera, aipatutako elementuak jarriz udal baimenik gabe lurzoru publikoaren okupazioaren balizkoetan eta baimendu gabeko azaleraren okupazioarenean, okupazio horiei dagozkien prezio publikoak lau aldiz gehituko dira Ordenantza honetan ezarritako kopuruak.

Baimenaz edo baimengabetzat jotzeko, aldi batez baimena gaintzen duen lurzoru publikoaren okupazioa (berariz edo nahi gabe, eskatutakoaren arabera) baimengabetzat joko da.

XEDAPEN DEROGATZAILEA

Derogaturik geratzen da aurreko Ordenantza, 1992ko ekainaren 12an egindako osoko bilkuran behin-betiko ontzat emandako Ordenantza, hain zuzen ere.

AZKEN XEDAPENA

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Behin-betiko Testua argitara ematen denetik hamabost egunera sartuko da indarrean Ordenantza hau, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70-2. atalean xedatutakoaren arabera.

***ARRASATE UDALERRIAN OBRAK BURUTZEAN EDUKIONTZI, HESI BABESTAILE, ALDAMIO ETA GAINERAKO EKIPO
ETA MATERIALEZ LURZORU PUBLIKOAREN ERABILERA BEREZIAREN MUGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA
BERRIA***

-;Error!Marcador no definido.-